

# Euskara errazean txaplaka

Alex Gurrutxaga

**K**epa Altonagaren *Back to Leizarraga* liburua hizkuntzaren eztabaida mahai gainean jartzen du. Eztabaida horretan, dio Altonagak, Gabriel Arestik erakutsi zion Leizarragaren-gana itzuli beharraren garrantzia. Paradoxa ederra: poeta modernoa klasikoengana bidaltzen. Aita Villasante aipatzen du segidan, eta nola bere ustez Leizarragak demostratu zuen euskarak natural hartu eta jorra dezakeela ondare greko-latindarra. Abiapuntu horretatik, literatur euskararen eta euskara teknikoaren hamaika ertz jorratzen ditu egileak, zuzen eta graziarekin.

Lexikoarekin hasten da: seguruenik ez da hori puntu inportanteena, nahiz apika bai gaian murgiltzeko errazena. Ongi jorratzen du eremua, nahiz eta garbizalekeriak –batez ere– gure hiztegian egin dituen kalteei bu-

ruzko Altonagaren tesia ez den honezkeru oso berritzailea; alegia, aspalditxo dakigu garbizalekeriak «garbiaren garbiz ulertezin» bihurtu izan duela euskara.

Altonagaren ustez, antzua da hala syntaxian –erlatiboen ukapenean endrokatuta– nola lexi-



## 'Back to Leizarraga'

Egilea: Kepa Altonaga.  
Argitaletxea: Pamiela.

koan –maileguak ukatuz– jarra purista hartzea, eta zorrotz argudiatzen du integratu beharra dagoela ondare latindarra. Horrez gain, ez guke ahaztu behar hiztegi zabalak daukagula ahozko tradizioan; atentzioa ematen du, hartatik, herri literaturak ze leku gutxi hartzen duen saiakera honetan. Halatsu gertatzen da euskalkien aportazio posibleekin ere; X. Amurizaren euskara batu aberastua goratzen badu ere, eta Altonagak berak, adibidez, asko eta ederki erabiltzen dituen arren «-gaz» edo «ez noa esaten» bezalakoak, ildo horri gutxi tiratzen dio.

Batez ere euskara teknikoari heltzen dio. Kasu horretan, Altonagaren ustez, neologismoek kalte handia egin dute, eta aurreiritzen eraginez, «zabarkeria ikusi dugu [egile zaharren euskaran], benetan egon dena zorrotz tasuna izan den lekuan». Horra eztabaidarako hari mutur interesgarria.

Amaieran planteatzen duen kontua da euskara errazarena, literaturaren ikuspegitik interesgarriena. Gezurra izanik euskarak ez duela ahalmenik, eta jakin badakigunez euskara noranahikoa dugula, hauxe da galdera: hiztuna iago behar dugu «euskara

errazaren urmaeletik haratago ausart» dadin ala euskara jaitxi behar dugu hiztunok «euskara errazean plisti-plastaka» ibil gaitezen? Horra beste eztabaida ildo interesgarri bat.

Oro har, gogoetarako bideak ederki zabaltzen ditu Altonagak, eta irakurleak aukera dauka bide horietan kritikoki sartzeko. Kontaerari dagokionez testu oso egokia da: hariari zehatz tiratzen dio, saiakeraren tonua modu orekatuan mantenduz –batzuetan oso kritiko–, eta, inoiz errepikakorra bada ere, mintzaira anaforikoak irakurleak bidetik apartatu gabe eramaten du. Narrazio petoari ekiten dion une apurretan, berriz, hala nola Zorrotza eta Arestiri buruzko pasartean, kontaketa fin askoa da.

Liburu honen gaia ez da berritzailea –zenbait puntu lehendik ere jorratuak dauka egileak berak–, ia eternoa dela ere sentitzen dugu honezkeru, baina beharrezkoa izaten segitzen du. Leizarragak –Altonagarekin hizketan– gaur egun zer esaten digun? Bada, ez denez munduan euskarari guk bezainbat nahi dionik, eta desiratzen dugunez «betierekoa» izan dadin, behar bada horretarako «eternala» izaten utzi behar geniokeela.



## 'Maiatz', 61. zenbakia

Argitaratzailea: Maiatz.

**P**ier Paolo Pasolini, Arthur Rimbaud eta Marina Tsvetaievaren oihartzunak, Gerard Bagardieren *Satorrak* antzerki lanaren euskarazko itzulpena eta *Maiatz* solasaldietan zenbait sortzailek *Artea* eta *Literaturaz* gaia ardatz harturik esandakoak eskaintzen ditu *Maiatz*-ek iazko azken zenbakia, besteak beste.



## 'Karmel', 292. zenbakia

Argitaratzailea: Euskal Herriko Karmeldarrak.

**Y**olanda Arrietaren *Argiaren alaba* liburu Euskadi saridunari buruz idatzi du Ana Urkizak *Karmel* aldizkarian. Patxi Juaristik *Euskal kultura industriaren enpresak: gaziak eta gozoak* artikulua kaleratu du. Beste egile batzuen lanik ere bada: Luis Baraiazarra, Koldo Katxo, Lontzo Zugazaga, Juan Luis Goikoetxea...



## 'Intelektualismo moral eta herrien aurrerabidea'

Egilea: Roman Garmendia.  
Argitaletxea: Erroteta.

**E**rrebelazioa «kultura orientalean» gertatu izanak «ez dakar kultura orientala unibertsalitate», egileak liburuaren kontrazalean dioenez. «Errebelazioa bada, baina kulturen arragoan gaiztoena ez da derrigorrez unibertsal eta gaititu ezina».

# Xolaren belarriak tente

**HAUR ETA GAZTE LITERATURA**

Imanol Mercero

**S**uposatzen dut, irakurle, Xolaren berri baduzula. Agian azken abentura hau ere irakurriko zenuen, igaro berri dugun oporraldia tarteko... Edo agian ez. Dena dela, ea lortzen dugun zerbait interesgarria eskaintzea, zaharrak berrituz.

Ofizialki bosgarren abentura da *Xola eta lapurra*. Halere, aipatzen ez den beste istorio txo bat dago, 2000n *Gara* egunkariak kaleratua, ipuin elebidunen bilduma baten barruan, *Xola ehizan*–*Catch that mouse* deitzen dena, eta kopurua seira igotzen duena. Izan, *Xola eta Angelito* obraren aurrekari

kronologikoa da *Xola ehizan*, baita narritiboki ere, zeren –dena esan behar bada– hau haren hezurdura narritiboa baita, eleberrin baten sarrera atalak izan ohi dituen funtzioekin.

Bilduma jarraitu baduzu kon-



## 'Xola eta lapurra'

Idazlea: Bernardo Atxaga.  
Ilustratzailea: Mikel Valverde.  
Argitaletxea: Erein.

turatuko zinen txakur honen abenturak bereziak direla, narritzaileak ezohiko bideetatik urratzen duelako kontaketa, *psikologiko* abizenarekin izendatzen den literatura motaren barruan, anekdota domestiko xumeekin egindako hari narritiboen gainean, pertsonaien barruko *mugimenduekin* eraginez akzioa kontaketa. Lapur baten agerpenarekin jositako azken abentura honetan, hain zuzen, kontaketa psikologikoa baitako pauso berri bat ematen du narritzaileak, eta txakurraren pentsamenduak gorputz ataletatik abiatuko balira bezala kontaketa dizkigu hainbat pasarte, hankek, isatsak, edota belarriak unean-unean zer pentsatu eta sentitzen duten adieraziz. Orain arte halakorik ez genuen ikusi Xolaren abenturatan. Hori bai, guztietako ezaugarri komuna Xolaren izaera markatua da: lotsarik batere gabe bere burua iruzur bidez goratzen saiatzen da, unean-unean komementziagatik, eta harremanak kudeatzeko bitarteko gisa. Egois-ta galanta da, bere onura bilatzen du, baina ez da gauza urrutirako kalkulak egiten, eta

unean-unean pulstioek gobernatzen dute bere jarduna. Azken finean, Xola haurren psikologia irudikatzen du bide bat da. Halako ezaugarri ugari ditu Xolak, denak ere haurren psikologiarekin erraz parekatzen direnak, eta idazleak umorea eragiteko baliatzen dituenak; esperientzia gabezia Xolarengan ezjakintasuna, axolagabekeria eta lotsagabekeria bihurtzen dira, eta alferkeria xarma.

Bestalde, narritzailearen hariari berriz helduta, derradan, narritzailearen presentzia hain nabarmenarekin ere, liburu hauek boz gora irakurtzeko bikainak suertatzen dira, zortzi bat urtetik gorako haurrekin.

Eta azken bi hitz aurreratzeko, kontakatiluarena egin gabe, abentura honetan Xola eta Grogo bizi diren erakinean lapur batek eragindako izua dela ardatza, dagoeneko 5Bn eta 4Cn norbait ebasketetan aritu baita, lapur fina nonbait, bitxiak eta dirua besterik hartu ez dituen, paporean domina duen inspektore-andreak esan dienez. Eta Xolak amesten du domina bat gustura hartuko lukeela, urrezkoa baino, txokolatzekoa hobe...